

**GERNIKAKO TXOKILOAKO TRENBIDE PASAGUNEA
KENTZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA**

MEMORIA

2025eko URTARRILA



euskal trenbide sarea

MEMORIA

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUAREN XEDEA.....	1
2. EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA	1
3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA ETA IRISMENA	2
3.1 DESKRIBAPEN OROKORRA	2
3.2 KARTOGRAFIA ETA TOPOGRAFIA.....	3
3.3 ZERBITZU-SAREEI ERAGITEA	3
3.4 DESJABETZEAK	3
4. ADMINISTRAZIO-XEDAPENAK.....	3
4.1 LAN-PROGRAMA ETA BERME-ALDIA	3
4.2 OBRA OSOAREN SAILKAPENA	4
4.3 BESTE XEDAPEN BATZUK	4
5. PROIEKTU HAU OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK	5
6. GAUZATZEKO EPEA	5
7. AURREKONTUA	6
8. AZKEN GOGOETAK	6

1. PROIEKTUAREN XEDEA

Dokumentu honen xedea da Gernikan Txokiloako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuko jarduketak proiektatzea.

2. EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA

ETSren Zornotza-Bermeo lineako Gernikako Txokiloa trenbide-pasagunea (12+792 KP) P klaseko trenbide-pasagunea da. Ondoko nekazaritza-eremuetara sartzeko pasagunea da.



ETSren Zornotza-Bermeo linea ustiatzeko baldintzak eta segurtasuna hobetzeko, Txokiloako trenbide-pasagunea kentzea planteatu da. Eta, horretarako, beharrezkoa da 2 metroko zabalerako bide-zorra jartzea, lehendik dagoen bide-sareari lotzeko eta jarraitutasuna emateko.

Hauek dira proiektuaren baldintzatzaileak:

- ETSren Zornotza-Gernika trenbidea
- Lehendik dauden nekazaritza-lurzatiak
- Lehendik dagoen bide-sarea

3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA ETA IRISMENA

3.1 DESKRIBAPEN OROKORRA

Bidea Txokiloako trenbide-pasagunean hasten da, eta, ondoren, nekazaritza-eremu batzuk zeharkatzen ditu. Nabarmentzekoa da bidearen erdian erabiltzen ez den zutoin elektriko bat dagoela, kendu egin beharko dena. Azken zatian, bidea beste bide batekin lotzen da.



Dagoen arazoa konpontzeko, honako jarduketak hauek proiektatu dira:

- Lehendik dagoen 2 m-ko zabalerako bideari aplikatzen zaion bide-zorra ezartzea
- Txokiloko trenbide-pasaguneko instalazioak eraistea
- Trenbide-pasagune itxiaren itxitura berria

3.2 KARTOGRAFIA ETA TOPOGRAFIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren 1:500 kartografia erabili da.

3.3 ZERBITZU-SAREEI ERAGITEA

Ez da aurreikusten zerbitzu-sareei eragitea. Ukitutako zutoina ez da erabiltzen. Ez da aurreikusten seinaleztapen- eta komunikazio-instalazioei eragitea.

3.4 DESJABETZEAK

Proiektu honetako jarduketak gauzatzeko, 527 m²-ko bide-zorra egitea aurreikusi da lursail partikularretan.

4. ADMINISTRAZIO-XEDAPENAK

4.1 LAN-PROGRAMA ETA BERME-ALDIA

Obrek hilabete eta erdi (1,5) iraungo dutela aurreikusten da.

Eraikuntza hainbat fasetan planteatzen da:

- Lehenengoan, kontrataren instalazioak eta babesak egingo dira.
- Bigarren fasean, egungo egoeraren jasotzea egingo da, "in situ" zuinketa egin ondoren, eta proiektuaren neurketak egokituko dira, egungo egoeraren eta zuinketaren neurketei dagokienez.



euskal trenbide sarea

MEMORIA

- Hirugarren fasean, proiektatutako itxiturak eraikiko dira eta kendu den trenbide-pasagunearen instalazioak kenduko dira.

Bermealdia bi urtekoa izango da, obrak jasotzen direnetik aurrera. Epe hori nahikoa da obrek zerbitzu-baldintzetan duten portaera behatzeko.

4.2 OBRA OSOAREN SAILKAPENA

Proiektu honek obra oso bat jasotzen du, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 125. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta, amaitutakoan, erabilera orokorrerako edo dagokion zerbitzurako eman daiteke, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 108. artikulua arabera.

4.3 BESTE XEDAPEN BATZUK

Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, Laneko Segurtasun eta Osasun Azterketa egin da.

5. PROIEKTU HAU OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

1. DOKUMENTUA. MEMORIA ETA ERANSKINAK

Memoria

1. eranskina Argazki-erreportajea
2. eranskina EEHen azterketa eta kudeaketa
3. eranskina Obra-plana
4. eranskina Prezioen justifikazioa
5. eranskina Desjabetzeak
6. eranskina Segurtasun- eta osasun-azterlana

2. DOKUMENTUA. PLANOAK

1. Egoera
2. Egungo egoera
3. Etorkizuneko egoera (planta)
4. Etorkizuneko egoera (sekzio-tipoa eta itxitura)
5. Zirkulazio-elementuak kentzea
6. Desjabetzeak

7. 3. DOKUMENTUA. BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

4. DOKUMENTUA. AURREKONTUA

1. Neurketak
2. 1. eta 2. prezioen taulak
3. Aurrekontua

6. GAUZATZEKO EPEA

Obrek hilabete eta erdi (1,5) iraungo dutela aurreikusten da.

7. AURREKONTUA

GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA

Gauzatze materialaren aurrekontua **HOGETA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA HOGEI EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMOKOA (33.620,85 €)** da.

KONTRATA BIDEZKO EXEKUZIO-AURREKONTUA

Gauzatze Materialaren Aurrekontuari gastu orokor (% 13) eta mozkin industrial (% 6) kontzeptupean % 19ko gehituz, Kontrata bidezko Exekuzio Aurrekontua **BERROGEI MILA ETA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMOKOA (40.008,81 €)** da.

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZa barne)

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua **BERROGEITA ZORTZI MILA LAUREHUN ETA HAMAR EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMOKOA da (48.410,66 €)**, (%21) BEZa barne.

8. AZKEN GOGOETAK

Proiektu honen xede diren obrak behar bezala definitu eta justifikatu direla kontuan hartuta, ohore handiz aurkezten diogu Nagusiari, hala badagokio, onar dezan.

Bilbo, 2025eko urtarrila
Proiektuaren egilea

Stua.: Eneko Ugarte
Bide, ubide eta portuetako ingeniaria